

# BIODIBERTSITATEA INGURUGIRO ETXEAN



Konturatu nahiz konturatu ez, gurekin batera bizi diren landareei, animaliei, onddoei eta mikroorganismoiei guztiz menpekotarik bizi gara. Elikatu egiten gaituzte, gure bizi kalitatearen oinarri diren sendagaiak eta bestelako produktuak eskaintzen dizkigute, eta emankortasun bideragarria segurtatzen dute. Baina azken hamarkadetan ikusi denez, ezinbestekoa da gizakiak ingurumenarekin darabilen jokabidea aldatzea. Nahiz eta gure kezkarik handiena gure ingurune hurbilenekoaren degradazioa den, ez dugu ahaztu behar biosfera sistema natural handi bat dela. Horrenbestez, gugandik urrun dauden ingurumen-arazoaren ondorioak oraingoz jasaten ez baditugu ere, gogoan izan beharko genuke lehentxeago edo geroxeago aurre egin beharko diegula.

## Egin ariketak eta erantzun galderari:

1- Zer da biodibertsitatea?

- .....
- .....
- .....
- .....

2- Zein alderditan ipiniko zenuke arreta ekosistema bateko bioaniztasuna balioesteko? Arrazoitu zure erantzuna.

- .....
- .....

Ekosistemek gizakioi eskaintzen dizkiguten zerbitzuak, ekosistemetatik lortzen diren onurak dira. Ekoizpen sistemak, giza elikadurak, medikuntzak, etikak, eta estetika berak ere, biodibertsitatearen garrantzia egiaztatzen dute argudio garrantzitsuak emanaz.

3- Zein ekarpen egiten ditu biodibertsitateak alor horietan ?

- .....
- .....
- .....

## BIODIBERTSITATEA INGURUGIRO ETXEAN

4- Izan al du aldaketarik biodibertsitateak bizitzaren historian zehar? Ipini adibideak.

- .....
- .....

5- Zein da biodibertsitatearen kausa?

- .....
- .....

6- Zer da bioma bat?

- .....
- .....

7- Osa ezazu Lurreko biomei buruzko koadro hau

Bioma	Batez besteko temperaturak	Urteko prezipitazioak	Landareria	Fauna

8-Euskal Herriko lurralde guztietan landaretza eta animalia berdinak al daude? Non dira ugariagoak?

.....

9-Marka itzazu ondorengo zerrendatik zure ustez babestuta dauden espezieak eta azaldu zergatik:

- Enkartarrietako astoa
- Bisoi europearra
- Bisoi amerikanoa
- Ugatza
- Betizua

.....

10- Ipini ezazu egia (E) ala gezurra (G) ondorengo esaldien ondoan:

- Polilaborantza indartuz gero lurzoruari eragiten zaizkion inpaktuak murriztuko dira.....
- Habitat bat suntsitzen bada , bertako bioaniztasuna erabat galduko da.....
- Biodibertsitatea aberasteko landare exotikoak sartzea oso egokia da.....
- Hirietako kutsadurak ur ekosistemetan eragina du.....
- Espazio natural babestuen bidez ekosistemak babesten dira.....

11- Bistan da biosibertsitateak ingurumenaren ongizaterako duen garrantzia. Eta beste helburu askoren artean, hauxe da babesguneen helburuetako bat. Baina babes izendapenak izen desberdina hartzen dute bertako administrazioaren arabera. Europar Batasunean, badira, habitat zuzentarauari loturiko izendapen komun batzuk, zeinak toki guztietan berdinak diren. Hala ere, hau ez da beste izendapenekin gertatzen.

EAE n ondoko babes izendapenak existitzen dira. Bila ezazu informazioa eta ipini itzatzu adibideak. Zerrenda osatu eta gero, koka itzatzu zuk zeuk marraztutako Euskal Autonomi Erkidegoko mapa batean.

## Babes izendapenak

## Adibidea

- Garrantzi Komunitariako Lekuak (GKL).....Izarraitz
- Hegaztien Babes Bereziko Lekuak (HBBL).....
- Parke Naturalak .....
- Biotopo Babestuak .....
- Zuhaitz apartekoak .....
- Biosferaren erreserba .....